

Zuiako gaztetxeak beste eraso bat pairatu duela salatu dute gazte asanbladako kideek

ALEA.EUS :: 11/04/2024

Salatu dutenez Martxoaren 27an gaztetxeko leihoak harrikatu zituzten eta, erasoak salatzeke asmoz, elkarretaratzea egingo dute ostiralean.

Joan den martxoaren 27ko gauean Zuiako gaztetxeak "beste eraso bat" pairatu duela salatu dute Zuiako gazte asanbladako kideek agerraldi batean. Gaueko ordu txikitan leihoak harrikatu zituzten, eta ez da hau izan duten lehen erasoak: "Zoritxarrez, pasa den urteko abuztuaren era desberdineko erasoak izan ziren: kristaletan pintadak izan ziren, pintura jaurti zuten, foku eta buzoia apurtu zuten..."

Eraso berri hau hau eguneroko "askatasunen kontrako erasoaren barruan" kokatu dute gazteek, "eraso politiko" moduan, eta elkarlanean 15 urtez osatutako espazioa defendatzen jarraituko dutela azpimarratu dute. "Irmoki berresten dugu ez dugula onartuko espazio autogestionatuen kontrako erasorik. Ez Zuian, ez inon. Eta erasoaren aurrean antolatuta aurkituko gaituztela".

Erasoa salatzeke asmoz, elkarretaratzea egingo dute ostiralean, apirilaren 12an, 19:00etan, Murgiko plazan, eta Zuia zein inguruko herritarrei egin diete deia bertan parte hartzeke.

<https://eh.lahaine.org/zuiako-gaztetxeak-beste-eraso-bat>